

# GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA

Aranzadi Zientzia Elkarteak natur eta giza zientzien arloan ikerketa zientifikoa eta haren hedapena helburu dituen irabazi asmorik gabeko erakundea da. Sortu zenetik, erakunde independente esanguratsuenetako bat izan da Euskal Herriko natur zientzien eta antropologiaren esparruan.

Gaur egun 2.000 bat bazkide eta jakintza-esparru ezberdinetako 150 ikertzaile inguru biltzen ditu.

## EGIN BEHARREKOAK

Gerentearekin batera eta departamentuekin elkarlanean:

Lan kontratuak eta nominak:

- Kontratazioa: Kontratu berriak formalizatu eta kudeaketa-sisteman kargatu.
- Gizarte Segurantzak: Altek, bajek eta bestelako aldaketek asesoriarekin duten komunikazioa ziurtatu.
- Nominen kudeaketa: Hileko nominen zerrenda gainbegiratu, kontabilizatu eta ordainketen fitxategiak bideratu.
- Informazioa: Datu basea eguneratuta eduki.

2. Langileen Jarraipena eta Kontrola:

- Asistentzia eta Lizentziak: Erregistro-kontrola, oporrak, baimenak eta kontratuen datak zorrotz kudeatu.
- Kostak: Ordu-kostuen kalkulua eta iraupenen analisia egin.
- Fitxategiak: Langileen fitxa pertsonalak eguneratuta mantendu.

3. Lan Osasuna eta Prebentzioa (LAP):

- LAP Kudeaketa: Prebentzio plana garatu eta jarraipena egin
- EPlen Kudeaketa: Babes indibidualerako ekipoen hornidura eta kontrola.
- Osasun Azterketak: Medikuzko azterketen koordinazioa

4. Garapena eta Lan Harremanak:

- Harrera: Langile berriei ongi-etorria eta harrera plana kudeatu.
- Prestakuntza: Formazio planaren aurreikuspena, jarraipena eta dirulaguntzen kudeaketa.

---

## ESKATZEN DA

- Ikasketak: Lan harreman eta Giza baliabide , edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza gradua.
- Esperientzia: Antzeko zereginetan aritua, batez ere lan-administrazioan.
- Tresnak: ODOO softwarea ezagutzea baloratuko dugu.
- Gaitasunak: Ordena, zorroztasuna datuekin eta epeak betetzeko gaitasuna.
- Euskeraz lan egiteko gaitasuna izatea, C1 maila baloratuko delarik.

## ESKAINTZEN DA

- berdintasunean eta gizartearekiko konpromisoan oinarritutako lan-ingurunea.
- Postuari dagokion ardura eta eskakizunekiko baldintza egokiak, barne irizpideekin bat etorritik.
- Lanaldia: lanaldi osoa.
- Amatasun ordezkapena.

## BIDALI KURRIKULUMA

Itxaso García (giza baliabideak), [igarcia@aranzadi.eus](mailto:igarcia@aranzadi.eus)

## EPEA

Hautagaiak jasotzeko azken eguna, 2026ko Apirilaren 24a izango da